

BIGARREN GARAIA : POSIBLE OTE DA?

FANTASTIKOA

Literaturan, **fantastikoaren** ezaugarri nagusia hau da: **naturaz gaindiko bitxikeriak gertatzen dira eguneroko arruntean**. Gertakari horiek mehatxagarriak dira, eta narratzailea usu lehen pertsonan mintzo baita, ez dakigu mehatxu hori egiazkoa den ala narratzailearen irudimena baizik ez den. Duda hori beti bada kontakizun fantastikoetan, eta horrek berak jakin-mina atxikitzen du. Giro fantastikoaren azkartzeko, narratzailearen ingurumena kezkarria da, eta irudimen kolektiboan misterioari lotua.

Fantastiko-ren sinonimoak: bitxi, misteriotsu, kezkarri, paranormal

Adibidez: *mamuen agertzea, objektuak beren baitarik mugitzea, banpiroak...*

Fantastikoan, misterioa da nagusi, eta zientziak ez du laguntzarik ekartzen.

ZIENTZIA FIKZIOA

Zientzia fikzioa zientzian oinarritua den estrapolazioa da: gertakariak ezinezkoak dira autoreak idazten duen garaian, baina izan litezke etorkizun urrunean. Batzuetan, SFak aztertzen du oraina zer izan zitekeen iragana bestelakoa izan balitz.

Zientzia fikzio-ren sinonimoak: distopia, etorkizuneko mundua, antizipazio eleberria

SF-ko elementu adibideak: *plater hegalaria, denboran bidaiatzea, robotak, ziborgak...*

Zientzia fikzioan, gertakariak esplikatu daitezke zientziari esker. Egiazki izan litezke.

1. saioa – Gaian sar zaitez

Helburuak

Eleberrien azalen eta kontrazalen arteko loturen egitea, erabili seinaleak azalduz "Irakorrika" jarduera plantan ematea

Ibilbidea:

Taldeka	Gaian sar zaitez Irakasleak ikasleei erranen die “irakorrika” jardueran parte hartuko dutela. 9 titulu proposatuak dira. Talde bakoitzak gutienez 6 irakurri beharko ditu. <i>Ir: “Liburuak eskuetan ukan aitzin, “irakorrika” jardueraren ezagutzeko hau eginen duzue: eskuliburuko bi orrialde bikoitzetan diren liburuen azalak eta araberrak ipuin zatiak lotu. Horren egiteko hartu dituzuen seinaleak (izenburuaz gain) azaldu beharko dituzue.</i> <i>Ondotik talde bakoitzak liburu bat aurkeztu beharko du. Azala deskribatuko du, laburpena ozenki irakurri eta erabili dituen seinaleak azaldu. Denbora utziko dizuet aurkezpenaren prestatzeko.”</i> 1) Ikasleak taldeka arituko dira. Irakasleak USB gakoan den fitxa banatuko die, edo azalak eta laburpenak fotokopiatu eta mozturik. Ikasleek erabiltzen dituzten seinaleak gainmarkazten ahalko dituzte, edo idazten. 2) Irakasleak talde bakoitzari erranen dio zer liburu aurkeztu beharko duen. Ikasleek liburuaren aurkezpena prestatuko dute: - Azalaren deskribapena. - Testu zatiaren irakurketa. - Azalaren eta testu zatiaren lotzeko erabili seinaleen azalpena.
Ikastalde osoa 	Talde bakoitzak liburu bat azalduko du, aldizka. Azala deskribatuko dute, testua irakurriko eta erabili seinaleak azalduko. Biribiltzeko, zer eleberri mota den aipatuko da. Gehienak eleberri fantastikoak dira, baina zientzia fikziozko eleberri bat ere bada (<i>Jon eta Mirka Espedizio galdua</i>). Ondotik, liburuak eskukatuko dituzte. Ikasle bakoitzak bat hautatuko du.

Bakarka	Ikasleei memento bat utziko zaie isiltasunean irakurtzeko.
Bakarka	Ikasleek gustatu zaien zati bat edo hasi duten liburuari buruzko lehen inpresioak idatziko dituzte "Irakurle liburuxka"-n.
Ikastalde osoa	"Irakorrika"-ren antolamendua azalduko zaie ikasleei. Bakoitzak bere erritmoan liburu batzuk irakurriko ditu. Bukatu eta, ikasleek ipuinari dagokion galdetegia beteko dute. Beharrez "laguntza fitxa" erabiltzen ahalko dute. Erantzuna zer orrialdetan den adierazia da, eta ikasleek ipuinaren zati batzuk irakur ditzakete galdetegiaren osatzeko, zuzenketari so egin aitzin.
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

Irakorrika -Oharra

Jone eta Mirka komikiari buruz, Asun Agirianorekin egin elkarriketa entzunaraz daiteke ikasgelan.

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/sautrela/bideoak/osoa/4653629/bideoa-jon-eta-mirka-komikia-aztertu-du-asun-agirianok/>

2. saioa – Telelabirintoa - Mayi Pelot

Helburuak

Zientzia-fikziozko testu baten ulertzea

"Zatiak elkarri josiz" jardueraren egitea

Testuaren seinaleetan oinarrituz ipuinaren espazioaren irudikatzea

Ikastalde osoa 	Testua uler ezazu <i>Telelabirintoa</i> ipuinaren testuingurua ikasleei ezagutarazteko, lehen bi paragrafoak irakurriko dira "Zatiak elkarri josiz" jarduera eginez. <u>Oharra</u> Lehenik, irakasleak testuaren zatiak fotokopia ditzake, ikasleek jarduera binaka egin dezaten. Ondotik ikastalde osoarekin egin daiteke. Edo alderantziz, lehenik talde osoarekin eta ondotik taldeka.
Bakarka	<i>Irakaslea: "Hirugarren paragrafoa irakurriko duzue "... jaki eta edariak sukaldetik eskuz ekarri behar"-eraino, eta Anaizen bizilekua marraztuko. Anaizen bizilekua ez duzue asmatu behar. Testuaren seinaleetan oinarrituz marraztu behar duzue. Nolako espazioa da? Objektuak non kokatuak dira? Azkenean marrazkiaren legenda idatziko duzue. Beharrez testuko hitzak erabiltzen ahalko dituzue.»</i>
Taldeka	Ikasleek taldeka lan egingen dute eta aldizka marrazkia elkarri erakutsiko diote. Irakaslea ikasleengana joanen da eta azalaraziko die zer seinaleetan oinarritu diren elementuen marrazteko.
Ikastalde osoa	<i>Irakurketa aldizkatua</i> plantan ezarriko da. Talde osoak 2.b) galderari erantzunen dio. Anaiz eta haren aitaren bizilekuak konparatuko dira.
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

3. saioa – **Lurtarrak** Xabier Monasterio Sarrera I & II.orrialdeak

Helburuak

Zientzia-fikziozko testu umoretsuaren, eta berdin ironikoaren ulertzea.

Testuaren seinaleetan oinarrituz ipuinaren zatiak ordenatzea

Pertsonaiaren lekuan ezartzea, haren sentimenduen irudikatzeko eta adierazteko.

Ikasleek sentitu dutenaren eta autorearen hizkuntza erabileraren arteko loturen egitea.

Bakarka	Testua uler ezazu Duten mailaren arabera, ikasleek taula eta zatien kopurua ukanen dute. Irakasleak ikasleak lagunduko ditu testuko seinaleen kontuan hartzen.
Taldeka	Ikasleei testuaren zati bedera banatuko dio irakasleak eta Irakurketa baltsan plantan ezarriko da. (Gida . or.)
Ikastalde osoa	Irakaslea: “Ipuina irakurriko dizuete. Estralurtarraren pertsonaia zaretela irudikatzera entseatuko zarete, haren sentimenduaren ulertzera. Ondotik zuen irudipenei buruz eztabaidatuko dugu.” Erregistro umoretsua, berdin ironikoa azpimarratuko da.
Bakarka	Testuan ironia erakusten duten seinaleak gainmarkatuko dituzte ikasleek, edo orrialde batean kopiatuko.
Ikastalde osoa	Irakasleak testua proiektatuko du eta seinaleak gainmarkatuko. Seinale horiek bil daitezke...  Lurra eta antzeko sasi-zibilizazioak ... halako toki kaskar batera. Lurraren kasuan, ordea, ez zuen merezi hori egitea, bertakoek oso oinarritzko teknologia daukatelako. Adibide bezala, esango dut oraingoz ozta-ozta lortu dutela beren satelite bakarra, Ilargia, zapaltzea. Eta Lurretik Ilargira 384 000 (hirurehun eta laurogeita lau mila) kilometro baino ez daude... Lurtarrak benetan izaki bitxi eta aldrebesak dira eta xelebrekeria piloa egiten dute. Egia esan, ezinezkoa da haien bizimodua eta portaera ulertzea, logika guztietatik kanpo bizi direlako. Ondo pentsatuta, ordea, gure ikertzaile gazteei Lurra planeta ezagutzea komeni zaiela uste dut, anti-zibilizazioa zer den ikasteko. Eta horretan, iker lan honek zerbaitetarako balio izango dut...
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

4. saioa – **Lurtarrak** Xabier Monasterio Sarrera I & II.orrialdeak + Kapitulu batzuen sarrerak

Helburuak

Zientzia-fikziozko testu umoretsuaren, eta berdin ironikoaren ulertzea.

Pertsonaiaren lekuan ezartzea haren sentimenduaren irudikatzeko eta adierazteko.

Argumentatzen ikastea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	Testua uler ezazu 6.galdera

	Irakasleak: "Estralurtar bat zaretela irudikatzera entseatuko zarete. Isiltasunean, estralurtarra bazinate, zuen ustez Lurrera heltzean zerk harrituko zintuzkete?" Ikasle bakoitzak 5-10 minutuz bakarka gogoetatuko du eta irakurle liburuxkan ideia batzuk idatziko.
Binaka/ taldeka	Ondotik binaka edo taldeka haien ideiak partekatuko dituzte.
Bakarka	Irakurle liburuxka osa dezakete.
Bakarka	Ahoz adieraz ezazu Irakasleak: "Lurtarrak liburuan ikusiko duzue lurtarren bizimoldeak estralurtarra zergatik harritzen duen." Ikasleek 8. orrialdean diren kapituluaren sar-hitzak irakurriko dituzte.
Ikastalde osoa	Irakaslea: "Eskuliburuan aipatuak diren bost gaietara buruz eztabaida prestatuko duzue. Binaka ariko zarete, eta gai bati buruz argudioak eta adibideak xerkatuko dituzue. Alde baikorrak eta alde ezkorrak zerrendatuko dituzue. Ondotik, launaka eztabaidatuko duzue gure bizimoldeari buruz: bi ikasle alde, eta beste biak kontra. Beste ikasleek entzuten dute. Eztabaida bat bukatu eta, aldatuko dugu, beste lau ikasle mintzatuko dira, eta besteek entzuten dute. Adibide bat elkarrekin egingen dugu." Arbelean hautu problematika bat idatziko du irakasleak. <u>Adibidez:</u> - Bizilekuak: "Denak hiri handietan bizi ote behar gara?" Ikastalde osoan argudioak eta adibideak zerrendatuko dira arbelean. Talde bakoitzak ber gaiari buruz eztabaidatuko du, trebatzeko. Eta entzuleek ebaluatzeko irizpide batzuk zainduko.
Binaka	Ondotik taldeka gelditzen diren beste 4 problematikei buruz eztabaida prestatuko dute. Bikote bakoitzari sarrera bat banatuko zaio eta landuko duten problematika bat. <u>Adibidez:</u> - Garraiobideak: "Mugitzeko, autoa ibilgailu hoberena ote da?" - Dirua: "Erosi, erosten, erosiko: bizian ekintza hau garrantzitsua ote da?" - Aisialdia: "Denbora-pasan, telebistari edo pantailari so egin?" - Ingurumena: "Teknologiari esker, ingurumena zaintzen ahal dugu." Bikote bakoitzak aldeko argudioak edo kontrako argudioak zerrendatuko ditu.
Launaka/ Ikastalde osoa	Talde bakoitzak landu duen problematikari buruz eztabaidatuko du... Ber egunean eztabaida guztiak entzun daitezke, edo egun guzietan eztabaida bat.
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

Bizilekuak - Denak hiri handietan bizi ote behar gara?	
Aldeko argumentuak	Kontrako argumentuak
Garraio publikoen erabilera laguntzen du. Natura gutiago suntsitzen da.	Eraikinak itsusiagoak dira. Natura behar da jendea ongi izateko. Jendea

Eraikinetan jende asko biltzen da, leku gutiago behar da bizitokien eraikitzeko. Zerbitzu publikoak antolatzeke aiseago da, hurbilago kokatzeko (osasun zerbitzua, hezkuntza zerbitzua ...). Laborariek ekoizpenak aise saltzen ahal dituzte, ber tokian. Kultura ekitaldiak hurbilago dira. Joan eta etorriko denbora gutiago behar da.	naturatik urruntzen da. Jendea bidaiatu behar da hiritik ihes egiteko. Desoreka sortzen dugu: toki batzuk jende anitzekin, beste batzuk hutsak. Hiri handiak baldin badira, laborariak urrunago joan beharko dira eta gastuak emendatuko dituzte.
---	---

Garraiobideak – Mugitzeko autoa ibilgailu hoberena ote da ?	
Aldeko argumentuak	Kontrako argumentuak
- Auto bat dugularik libro sentitzen gara: nahi dugun tenorean abia gaitzke, nahi dugun lekura. - Fite ibiltzen ahal gara. - Gure beharren arabera erabil dezakegu: bakarrik edo jendeekin. - Nahi dugun tokietan erabiltzen ahal dugu: hirietan, herrietan, mendian ... - Aski merkea da ... Gaur egun Europan jende gehienak bat erosten ahal du.	- Auto lerroak gero eta gehiago badira. - Usu autoetan pertsona bat baizik ez da. - Indibidualistak bilaka gintezke. - Aireak kutsatzen du eta harrabotsa egiten. Eta jende guziek autoa izanez geroz inguramenari kalte egiten lioke... - Auto batzuk izugarri indartsuak dira, eta horregatik edozein tokitara joaten dira, basak diren tokietara, planetako leku guzietan desmasiak eginez... - Bizikleta merkeago, isilago... da. - Garraio publikoak erabili behar dira, merkeagoak dira eta ez dute hain beste kutsatzen.

Dirua: «Erosi, erosten, erosiko: bizian ekintza hau garrantzitsua ote da?	
Aldeko argumentuak	Kontrako argumentuak
- Dirua beharrezkoa da bizia onaren ukaiteko eta gauzen erosteko. - Aisetasuna denei eskaintzeko laguntzen du. - Zoriontsu izateko, gauza asko ukan behar ditugu. - Ekonomia sustatzeko erosi behar da. - Modan izateko urtero jantzi berriak erosi behar dira eta horrela jendarteak ederragoa da. - Erosteak plazer egiten digu.	- Hobe dugu gauzen partekatzea. - 2. eskuko materiala erabiltzea hobeki da. - Erostea tenpluak egiten ari dira, denda erraldoiak, toki zabalak, mundu guzian hedatuz. - Jabe izatea ez da bizitzako helburu bat. - Zoriontsu izateko, dirua ez da inportanteena, eta jabeago ere ez. - Gehiegi erosteak gehiegi ekoiztera bultzatzen du, eta horrek kutsadura emendatzen du. - Denbora guziaz erosten iragaten baldin badugu, besterik egiteko denborarik ez dugu.

Aisialdia - Denbora pasan beti pantailari so?	
Aldeko argumentuak	Kontrako argumentuak
- Bai horrela azken berrien jakinean gara. - Denbora zaluago pasatzen da.	- Aktualitatea aurkezten dutelarik, negar eginarazi nahi dute. Eta informazio zehatzik eta

- Kultura garatzeko. - On egiten du deusi ez pentsatzeak. - Lagun taldean parte hartzeko, garrantzitsua da. - Telebistan, tabletan mugikorrean, edozein tokitan begiratzen ahal dugu eta lagunekin partekatu.	objektiborik ez dugu. - Motel bilakatzen gara, kanapean jarririk, pasiboak gara. - Osasunarendako kaltegarria da (ikusmena, akidura, pisua...). - Horrelako usaiak hatuz geroz, gure baitarik pentsatzea zaila zaigu. - Inguruko jendeak ahanzten ditugu. - Adikzioa bilaka daiteke. - Irakurtzeko indarrik ez dugu egiten.
--	---

Ingurumena - Teknologiari esker, ingurumena zaintzen ahal dugu.	
Aldeko argumentuak	Kontrako argumentuak
- Ingeniariak beti aterabideak atzemanen dituzte (zalu hazten diren landareak, animalien klonatzea...) - Produktu kimiko berriak erregulariki aurkitzen dira eta hori esker kutsadura ttipitzen ahal da (adibidez uraren « garbitzeko » ...) - Lur planetan diren toki guzietan bizitzeko parada atzematen ahalko da. - Garraioei esker, beste planeta batera joaten ahalko gara eta hango esperientzian oinarrituz ingurumena zaindu. - Hondakinak ttipitzen ahalko ditugu, edo espaziora igorri.	- Natura zaindu behar da, ezin dugu ordezkatu. - Produktu kimikoak asmatzen direlarik, beste arazoak sortzen ahal dira, gurpil zoroa sortuz. - Oihanak moztuak direlarik, galtzen dena ez daiteke berreskura. - Planeta sobera kutsatua izanen delarik, garbitzeko zailegi izanen da edo berantegi. - Hondakin toxikoak direlarik betirako horrela dira eta jendeentzat kaltegarri da.

5. saioa Alizia eta antzara jokoa

Helburuak



Genero fantastikoan kokatzen den obra oso baten irakurtzea
Antzara jokoa arauak gogoratzea

Binaka	1.galdera <i>Alizia eta antzara jokoa</i> liburuaren 4. orrialdea irakurriko dute ikasleek, eta proba batzuk asmatuko dituzte.																																
Ikastalde osoa	Ikasleek asmatu dituzten probak afixa batean bil daitezke, ipuina irakurri arau egiaztatzeko.																																
Binaka	2.galdera Antzara jokoa arauak, ahoz elkarri azalduko dizkiote ikasleek.																																
Bakarka	Ikasleek proposatutako arauak irakurriko dituzte.																																
Taldeka	Antzara jokoa arituko dira, erran-molde hauek erabiliz: - Antzaratik antzara, ni berriz jokora. - Zubitik zubi noa, eta urak zalu narama! - Ostatuan gertatuz geroz, itzuli batez pausatuko naiz/zara. - Puztuan gertatuz geroz, beste jokalaria bat laukitxo berera heldu arte egon behar naiz/zara. - Beste jokalaria bat libratu bainau, segitzen dut/duzu eta laukitxo berera heldu dena beha egon beharko da. - Labirintotik 30. laukira noa/zoaz. - Presondegian gertatuz geroz, hiru itzuliz jokatu gabe egon behar naiz/zara. - Buru hezurra gertatuz geroz, hastapeneko laukitxora itzuli behar naiz/zara, eta dena berriz hasi behar dut/duzu! -																																
Bakarka edo binaka	3. eta 4. galderak idatziz egingen dituzte ikasleek. Taula batean arrapostuak bil ditzakete. <table><tr><th></th><th>Antzara joko ohikoa</th><th>Animalien antzara jokoa</th><th><i>Alizia eta antzara jokoa</i> komikiaren antzara jokoa</th></tr><tr><td>6. laukitxoan</td><td>Zubia</td><td>Ibi bat</td><td>Zubia</td></tr><tr><td>12. laukitxoan</td><td>Zubia</td><td>Zubia</td><td>Zubia</td></tr><tr><td>19. laukitxoan</td><td>Ostatua</td><td>Habia</td><td>Ostatua</td></tr><tr><td>31. laukitxoan</td><td>Putzua</td><td>Zepoa</td><td>Putzua</td></tr><tr><td>42. laukitxoan</td><td>Labirintoa</td><td>Labirintoa</td><td>Ez da agertzen</td></tr><tr><td>52. laukitxoan</td><td>Presondegia</td><td>Kaiola</td><td>Presondegia ? (leihoetan burdin barrak badira)</td></tr><tr><td>58. laukitxoan</td><td>Buru hezurra</td><td>Marruaren buru hezurra</td><td>Buru hezurra</td></tr></table>		Antzara joko ohikoa	Animalien antzara jokoa	<i>Alizia eta antzara jokoa</i> komikiaren antzara jokoa	6. laukitxoan	Zubia	Ibi bat	Zubia	12. laukitxoan	Zubia	Zubia	Zubia	19. laukitxoan	Ostatua	Habia	Ostatua	31. laukitxoan	Putzua	Zepoa	Putzua	42. laukitxoan	Labirintoa	Labirintoa	Ez da agertzen	52. laukitxoan	Presondegia	Kaiola	Presondegia ? (leihoetan burdin barrak badira)	58. laukitxoan	Buru hezurra	Marruaren buru hezurra	Buru hezurra
	Antzara joko ohikoa	Animalien antzara jokoa	<i>Alizia eta antzara jokoa</i> komikiaren antzara jokoa																														
6. laukitxoan	Zubia	Ibi bat	Zubia																														
12. laukitxoan	Zubia	Zubia	Zubia																														
19. laukitxoan	Ostatua	Habia	Ostatua																														
31. laukitxoan	Putzua	Zepoa	Putzua																														
42. laukitxoan	Labirintoa	Labirintoa	Ez da agertzen																														
52. laukitxoan	Presondegia	Kaiola	Presondegia ? (leihoetan burdin barrak badira)																														
58. laukitxoan	Buru hezurra	Marruaren buru hezurra	Buru hezurra																														
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.																																

6. saioa - Alizia eta antzara jokoa

Helburuak

Genero fantastikoan kokatzen den obra oso bat irakurtzea



Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	5. galdera idatziz eginen dute ikasleek. Erantzun proposamen bat: a) Hiru antzara horiek nor ote dira? <i>Aliziaren lagunak: neska (jantzi bera du eta ileetan edo lumetan 2 xingola berde, 2 mutiko, bat kapa gorri batekin bizkarrean, beste bat tixerta marradunarekin)</i> b) Zergatik kexu dira Aliziaren kontra? <i>Antzarak bilakatu baititu</i> c) Pertsonaien desafioa zer ote da? <i>Antzara jokora elkarrekin sartu batira, elkarrekin aterako direla frogatu behar dira.</i>
Binaka	6. galderari ihardesteko, USB gakoan den taula banatuko zaie ikasleei. Duten mailaren arabera taula bete dezakete.
Binaka	7. galdera * Antzarak zer aholku ematen ote dio Aliziari? Alizia aholkuari jarraiki ote zaio? Zure erantzuna <u>justifika</u> ezazu. <i>Antzarak irabazle bat izan behar dela erraten dio. Horregatik eskuzabaltasuna eta elkartasuna ahanzi behar dela.</i> <i>Alizia aholkuari ez zaio jarraiki. 23. orrialdean helmugako marrara hurbiltzen delarik, frenatzen du, eta gibelera itzultzen da aurkariengana. Hiru antzara autora sartzen dira eta elkarrekin helmugako marra zapalduko dute.</i>
Ikastalde osoa	Genero literarioen arteko mugak ez baitira ez zehatzak ezta zorrotzak ere, pista batzuk aipa daitezke ikasleekin. → <i>Mundu errealetik mundu fantastikora pasatzen da.</i> <i>Parke batean dira. Txirrixta, gorgoinak, eta soka baranda badira. Mahai inguruan dira antzara jokoan ari. Aliziak dadoak botatzen ditu eta lurrean sartua den dado bat jo ondoren erortzen da. Begiak irekitzen dituelarik dado mendixka batean da. Igotzen da eta antzara joko erraldoi bat ikusten du.</i> → <i>Alizia joko batean zintzilikatua delarik krokodilo baten muturrean dela amesten du.</i> <i>Azken orrialdean ber egoera ageri da: haurrak ametsetan ziren, krokodilo muturretan zintzilikatuak, baina errealtatera itzultzen dira, parkera.</i> → <i>Liburu osoan, antzara jokoan ari dira. Jokoaren arauak ezagutu behar dira ipuinaren ulertzeko.</i> → <i>Azken irudia irekia da. Aliziak lagunak oihanera eramaten ditu. Egiatzko oihana atzemanen ote dute? Edo mundu fantastiko batean ibiliko ote dira?</i> Narrazio fantastikoetan pertsonaia ingurumen errealean ibiltzen da: a priori, ez da diferentziarik irakurlearen eta pertsonaiaren ingurumenen artean. Bizkitartean, pertsonaiaren bizia itzulipurdikatua izanen da tanpez, naturaz gaindiko gertakari bat(zu)en ondorioz. Baina ez da segurtasunik... Alabaina, narrazio fantastikoaren oinarritzko galdea hau da: gertakariak naturalak ote dira, ala naturaz gaindikoak? Ondorioz, pertsonaiak duda handiak ditu, eta batzuetan zaila zaio horien argitzea. Bi ihardespen izan daitezke orduan: bata errealtatearena, bestea naturaz gaindikoa. Beraz, narrazio fantastiko baten bukaera irekia izaten da (gehienetan). «Bukaera eza» erraten zaio. Istorioren hastapenean gertatu den fenomeno bitxia ez da argitua, eta ez da argitzen ahal. Irakurlea dudatan uzten da: nahi duen bezala interpreta dezake... Ipuin miresgarrien eta ipuin fantastikoen arteko diferentzia hau da: ipuin miresgarrietan naturaz gaindikoa hastapenetik onartua dela; berez doa eta ez du dudarik sortzen.
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

Ene kankak - Kilikon – Astronauta

https://www.youtube.com/watch?v=hG1o_C82qSo

Zer dela eta zer dela
Beti aurrerantz doana
Eta lerroen eskutan
Beldurgarria dena
Eta jakintsuen eskutan
Onuragarria dena?

Erantzuna: zientzia

Igarkizunak – Xabier Etxaniz